


Euskal Autonomia Erkidegoko aseguru libreko entitateek aseguratzan duten pertsona kopurua %1,8 jaitsi zen 2003. urtean

Poliza kolektiboak gehitu egin ziren; aitzitik, banako edo familiako polizak eta mutualitate publikoetako polizak gutxitu egin ziren

EUSTATen datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 305.356 pertsona zeuden Aseguru Libreko Entitateetan aseguraturuta, hau da, aurreko urtean baino %1,8 gutxiago zeuden aseguraturuta.

Lurralde historikoka, Bizkaiak jarraitzen zuen aseguraturutako biztanle kopuru handienarekin (%19,6), gero Araba (%13,2) eta azkenik Gipuzkoa (%7,7).

Grafikoa: Aseguratuen kopurua poliza motaren arabera, 2002-2003



Iturria: EUSTAT

Banako edo familiako polizaren modalitatea, aseguratu gehien zituena izan bazen ere (%51,9), aseguratu gehien galdu zituena ere izan zen (%-7,1); horien atzetik mutualitate publikoetako polizek ere aseguratu asko galdu zuten (%-6,5). Aitzitik, **aseguru kolektiboek** (enpresa edo beste talde zehatz batzuei zuzendutakoak), aseguraturutako biztanleen %29,7arekin, %13,1eko hazkundera izan zuten; horrela, 1999. urtean hasitako gehitzeko bilakaerarekin jarraitu zuten.

Aseguratu gehienek (%98,2) **osasun-asistentzia orokorra estaltzen duen poliza bat** aukeratu zuten eta soilik %1,8ak kontratatu zuen laguntza zehatza ematen duen besteren bat (hortzetako asegurua, esaterako).

Osasun-asistentziako aseguruen sektorean, 2003. urtean, guztira 148 milioi euroko sariak bildu ziren, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko BPGaren %0,3a. 2002.

urtearen aldean sari kopurua %7,9 gehitu zen; hala ere, hazkunde hori Estatukoa (%10,20) baino txikiagoa izan zen.

Euskal Autonomia Erkidegoan, **aseguratu bakoitzeko batez besteko saria** 485 eurokoa izan zen, Estatukoa (469 euro) baino handiagoa; eta horrek 2002aren aldean %10eko gehikuntza ekarri zuen. Poliza modalitate guztietan eman zen gehikuntza hori, baina batez ere poliza kolektiboetan (%14,8).

Aseguru libreko entitateetan, guztira, espezialitate guztietako 7.055 mediku eta 451 erizaintzako teknikari izan ziren. Horiek, 1.145.101 **kontsultatan** lagundu zuten (2002an baino %1,8 gutxiago) eta, beraz, aseguratu bakoitzak batez beste 3,7 bisita egin zituen. Bestalde, traumatologia, pediatria, tokoginekologia eta oftalmologia izan ziren (hurrenkera horretan) gehien bisitatu ziren espezialitateak.

Ospitaletan emandako laguntza %7,5 gehitu zen. Medik-aseguratzaileretatik etorritako gaixoen artean 43.188 **ospitaleratu egin ziren**. Horien %70ari, gainera, **ebakuntza kirurgikoa** egin zitzaion; hain zuzen, 30.244 ebakuntza egin ziren (aurreko urtean baino %4,1 gehiago).

Taula: Asistentzia mediko-farmazeutikoko aseguru libreko entitateen bilakaera

	EAE		
	2003	2002	Δ03/02
KARTERAREN LABURPENA			
Aseguratu kopurua	305.356	310.796	-1,8
Poliza kopurua	156.418	158.158	-1,1
Sari kopurua (mila €-tan)	147.946	137.086	7,9
Aseguratu bakoitzeko batez besteko saria (€)	485	441	10,0
MODALITATEAK (aseguratu kopurua)			
Banakoak edo familiakoak	158.525	170.578	-7,1
Kolektiboak	90.806	80.316	13,1
Mutualitate publikoak	56.025	59.902	-6,5
JARDUERA			
Kontsultak (milakoetan)	1.145	1.165	-1,7
Ospitaleratutako gaixoak	43.188	40.186	7,5
Ospitaletan egindako ebakuntza kirurgikoak	30.244	29.066	4,1

Iturria: EUSTAT

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte

Tlf:+34-945-01 75 47 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp